



2011-05-10

## ZUMAI A / Bihar zabalduko da Alondegia

Bihar zabalduko ditu ateak kultur etxe berriak. Aurrerantzean, bertan izango dira udal liburutegia eta kulturako bulegoak. Eguerdiko 12:00etan eta arratsaldeko 18:00etan bisita gidatuak egingo dira herritarrek eraikina ezagutzeko aukera izan dezaten. 19:00etan Oroitzapenen alondegia argazki erakusketa zabalduko da Oxford aretoan.

Erabat eraberritutako eraikinak, lehen solairuan Udaleko Kultura Sailaren eta Berdintasun eta Gaztedia Sailaren bulegoak izango ditu. Solairu berean bilera gelak ere badaude. Bigarren solairuan, haur eta gaztetxoentzako liburutegia egokitu da. Horretaz gain, ipuin kontaketak egiteko aretoa ere prestatu da. Hirugarren solairuan, berriz, helduentzako liburutegia dago. Eta azken solairuan, ikasteko eta lanak egiteko gela zabala egokitu da.

Helduen liburutegia ohikoa baino ordutegi zabalagoarekin irekiko da. Ikasleentzat azterketa garaia kontuan izanik, asteazkenetik ekainaren bukaera aldera arte goizeko 9:30etik 20:00ak arte irekita izango da astelehenetik ostiralera bitartean. Larunbatetan, berriz, 09:30etik 13:30era izango da zabalik. Azterketa garaia bukatu ostean, bere ohiko ordutegia 9:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da astelehenetik ostiralera. Larunbatetan, berriz, ordutegi berdina izango du 09:30etik 13:30era.

Haur eta gaztetxoentzako liburutegia 16:00etatik 20:00etara izango da irekita astegunetan. Larunbatetan, aldiz, 09:30etik 13:30era irekiko da.

### Lehen erakusketa

Bihar bertan zabalduko da Oxford erakusketa aretoa ere, Oroitzapenen alondegia argazki erakusketarekin. Alondegia berritzeko lanak hasi baino egun batzuk lehenago eraikinari egindako "azken erretratua" da. Berez, 2009an Baleike aldizkarian argitaratu zen erreportaje baterako egin zituen argazkiak Gorka Zabaletak. "Lanak amaituta eta eraikina berrituta, iragan denboraren lekuko bihurtu dira argazkiok", dio egileak erakusketaren aurkezpen testuan. "Garai bateko etxebizitzetako sukaldeak, komunak eta korridoreak; artisten tailerrak; zenbait talderen bulegoak eta ikastaro gelak; ganbarako bazter ezkutak; biltegia; hormetako hezedurak eta pitzadurak... Zaharraren azken erretratua. Ari zaizkigu koloreak lausotzen oroitzapenen alondegian; laster zuri-beltzekoa izango da erabat".